

**ARATZ-PINTO EUSKALTEGIRA BISITA  
VISITA AL EUSKALTEGI ARATZ-PINTO**

2017-10-27 Vitoria-Gasteiz 27-10-2017

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, Foru Diputatua, Sailburu orde eta zuzendari eta baita IKA eta Aratz-Pinto Euskaltegiaren ordezkariok, jaun andreok, egun on.

Hasteko eta behin, eskerrik asko zuen gonbidapenagatik.

Ondo dakizuenez egun eta momentu korapilatsuak bizitzen ari gara. Baina gaur oso gustura etorri naiz Euskaltegi honetara, zuekin batera, bisita hau egitera.

Iruditzen zait euskara gure herriaren arnasbidea dela eta zuen konpromisoa ezagutzea itxaropenez betetzen gaitu etorkizunari begira.

Euskara ikasteko pausoa eman duzue eta zuen erabakia eskertu nahi dugu. Badakigu hizkuntza berri bat ikastea ez dela beti maldan beheara izaten; esfortzua, diziplina eta irmotasuna eskatzen du.

Gure babesa eskaini nahi dizuegu euskarazko ergatiboaren, baldintzaren edota subjuntiboaren sekretuak arakatzen eta barneratzen ari zaretelako.

Zuen ahaleginak ekarpena ere ekarriko du, Euskaltegian ere mundu berri bat zabaltzen zaizue parez pare eta oso hurbil zegoen unibertso hori bereganatuko duzue.

Sinetsita gaude matrikulazio kanpainen erabili dugun leloarekin: “euskara ikasiz, mundu bat irabazi”, horrela izatea espero dugu.

Euskara gure herriaren arnasbidea dela esan dut. Garai hauetan zubi bat ere badela esan dezakegu. Azken urteotan zubi asko eraiki ditugu gizartearen ehuna sendoagoa izan dadin eta, zubigintza horretan, elkarrekin, jarraitu behar dugu.

Euskararena gure gizartean eraiki daitekeen zubirik iraunkorrenetako bat da, lirudikeena baino garrantzitsuago elkarbizitzaren ikuspegitik ere.

Euskararen zubia eraikitakoan, urrun zegoen hori oso gertu agertzen da. Urrutiko hitz, esapide edo kultura-adierazpen horiek ulergarri bilakatzen dira. Ikusezin zirudien hori ikusgai bilakatzen da, eraikitako zubi hori zeharkatzen hasi ahala.

Beraz, eskerrik asko euskararen zubia eraikitzen laguntzen ari zareten guztiei eta jarrai dezagun, elkarrekin, euskaraz gure herriaren arnasbide hori sendotzen.

Beraz, guztioi eskerrik asko eta animo!